

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Jendaurrean jartzea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen errolda

Egin delarik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2019ko errolda, jendaurrean jartzen da 15 egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Ordaintzeko aldia

Ordainagiriak udalaren bulegoetan ordaindu ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, jendea atenditzeko ordutegian, 09:30etik 13:30era.

Borondatezko epean kobratuko dira 2019ko apirilaren 25etik ekainaren 25era, egun biak barne.

Helbideratuta dauden ordainagiriak banketxeetan kobratuko dira, 2019ko ekainaren 20an.

2019ko ekainaren 26tik aurrera, ordainagiriak Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziara bidaliko dira, premiamendu bidez kobra daitezten.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2019ko martxoaren 13a

Alkate-lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA